

“IRAKASLEAK DIRA LANAREN ARDURADUN NAGUSIAK”



Elgoibar Ikastola | Mari Karmen Azpiazu | Ausartak3C | Lehen Hezkuntza 1

Elgoibar Ikastolako Ausartak3C taldea hirugarren izan da Lehen Hezkuntza 1 kategorian. Mari Karmen Azpiazu arduradunak galdetegiari erantzun dio.

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Ikasleen aportazioa ez da hain handia. Beraiek pozik ibili dira lan honetan baina ardura andereño edo maixuarentzat da.

Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Antolamendu on batekin berez ez, baina tutoretzako eta ordu batzuk kendu dizkigu. Bestalde IKTKin lotuta dagoenez, osatu egin dezake curriculumua.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Lanean hasi ginenean ez genuen planteiatu saria motibazio gisa. Kurtsalera denok joatea erabili genuen motibazio bezala.

Eta irakasleak? Ikastetxea?

Ikastetxeari ematen dio protagonismoa dudarik gabe.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?

Uste gabe saria jasotzea (Ikasleen aldetik)

Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Grabazioa egin ondoren, umeez beraien aparatoekin egin zutenez, formatu egokira pasatzea.

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Edizio batetik bestera nibela asko igo da eta zailtasunak asko dira.

Eta irakasleei?

Denbora faltaren eta azken orduko strasaren sensazioa.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

3. mailan ez txikiegiak dira.

Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?

Ebaluazioa mailaren errealitatekin bat etorri beharko luke, hau da 3. mailan eta DBH irizpideak zeharo desberdinak izan behar lukete.